

JUAN MARI ABURTO ALKATEA BURU IZAN DA AURTEN BILBAOARTEN EGOILIAR IZANGO DIREN ARTISTEN ERAKUSKETA KOLEKTIBOAREN INAUGURAZIOAN

- Bilboko Udalaren BilbaoArte Fundazioaren Ate Irekiak izeneko urteroko erakusketan 32 pertsonaren eta 2 kolektiboren artelanak daude erakusgai, 2018an zentro horretan egoiliar izan direnenak, hain zuzen. Haietako gehienak Euskadikoak dira, eta, gainerakoak, Amerika, Asia eta Europako hainbat herrialdekoak.
- BilbaoArte zentroa Bilbo Zaharrean dago, eta han izango da erakusketa kolektibo hau, jendearentzako irekia, abenduaren 10etik (astelehena) abenduaren 18ra (martitzena), astelehenetik barikura, arratsaldetan.
- Zentroaren hogeituro urteko historian zehar, bostehun artista baino gehiagok jaso dute beka hau, eta milaka nazioarteko sortzailek hautatu izan dute BilbaoArte beren arte-proiektuak garatzeko gune gisa, betiere Fundazioko talde profesionalaren lankidetzarekin.

(*Bilbon, 2018ko abenduaren 5ean*). Bilboko alkate **Juan Mari Aburto** buru izan da gaur BilbaoArte Fundazioaren Ate irekiak izeneko urteroko erakusketaren inaugurazioan; erakusketa horretan, gaur egungo 32 artista baino gehiagoren obra biltzen da, bai eta bi kolektiborena ere, zeinek beka bat jaso baitute 2018an.

Artista egoiliarrei zorionak eman ostean, alkateak bere nahia agertu die, hain zuzen: *“BilbaoArtetik igaro izana erreferentzia funtsezkoa izan dadila zuen curriculumean”*; horrez gain, beka horiek Udalarentzat zer esan nahi duten adierazi du, *“guretzat, pozgarria da zuen formazio profesionalean lagundu ahal izatea”*. *Bilbora talentua ekarri eta bertan atxikitzea ezinbestekoa da ezagutzaren, kulturaren, eta berrikuntzaren hiria eraikitzeko, horixe nahi dugu-eta izan dadin Bilbo”*.

Udalaren Produkzio Artistikoko Zentro honen aurkezpenean, 20. urteurrena bete baitzuen azaroan, Alkateaz eta Udalaren Kultura zinegotzi **Nekane Alonsoz** gain, Iñaki Lopez de Aguilera kultura-zuzendaria eta Juan Zapater BilbaoArteren zuzendaria ere izan dira, bai eta Bizkaiko galeristak, hiriko kultur erakundeetako ordezkariak eta zentroko artistak ere.

Juan Mari Aburtok, bere mintzaldian, Udalaren kultura-politikaren gakoak azaldu ditu, esanez *“Bilbok kultura politika bihurtu du bere nortasun eta ordezkapen elementuetako bat. Bilbok bere burua berrasmatu behar izan zuen: industria hiri izatetik kultura hiri izatera igaro da. Izan ere, gure udal politikak nazioarteko kokapena finkatzea, herritarren eskubide eta beharrian kulturei erantzutea eta gure sortzaileak lagundu eta sustatzea ditu helburu”*.

Era berean, azpimarratu du ezen Uriko kultura sektoreak zeregin funtsezkoa jokatzen duela: *“ekonomia jarduera eta enplegua sortzen laguntzen duen sektore bat zarete, sormen industriaren motor nagusietako bat zarete, hiriaren etorkizuneko sektore estrategikoetako bat”*.

2018ko ERAKUSKETA

BilbaoArte zentroa Bilbo Zaharrean dago, eta han izango da erakusketa kolektibo hau, jendearentzako irekia, abenduaren 10etik (astelehena) abenduaren 18ra (martitzena), astelehenetik barikura, arratsaldeetan.

Honako artista hauek eskuratu dute beka ikasturte honetan: Álvaro Albaladejo, María Alcaide, Raquel Algaba, Raquel Asensi, Anaïs Boudot, Nuria Cano, Manuel Casellas, Ernesto Casero, Olivier Etchegaray, Ander Garitacelaya, Leticia Gaspar García, Oier Gil Zapirain, Rakel Gómez Vázquez, Borja Gómez, Raúl Hevia, Arrate Hidalgo, Jorge Isla, Christian Lagata, Pablo Marte, Raquel Meyers, Joan Morera Arbones, Aitziber Olaskoaga Ajuria, Onirokino, Saray Pérez Castilla, Amparo Prieto Monreal, Cristina Ramírez, Fernando Renes, Mabi Revuelta, Mar Reykjavik, Lusaba, Miguel Sbastida, Jakin Fernández / Uka eta Marianne Wasowska.

Erakusketaz gain, abenduaren 10etik 14rako astean, artistek beren proiektuak aurkeztuko dituzte. Astelehenean eta asteartean, goizez eta arratsaldez, bekadunek beren mintzaldiak egingo dituzte, 15-20 minutuko txanda bana hartuz. Eguaztenetik barikura, 19:00etatik aurrera, beste arte-zentro batzuekin (Parisko *Cité des Arts*, *Bregenz-eko Kunsthaus* eta *Seulgo SeMa Nanji Residency*) mugikortasun programetan parte hartu izan duten artistek beren esperientzien berri emango dute, Frantzian, Austrian eta Hego Korean goitza izan baitute urtean zehar.

Arte produkzioeko zentroak 100 bat erabiltzaile izan ditu bere instalazioetan urtean zehar. 2018an, sei mugikortasun-programa sustatu izan ditu: hiru artista truke, eta, horietan, BilbaoArteko bost artistak egonaldiak egin dituzte arte zentro hauetan: Bregenz-zeko Kunsthaus (Austria), SeMa Nanji Residency (Hego Korea) eta Anma Suraka (Irakeko Kurdistan), Moving Artists elkartearen bidez. Zentro horietatik etorritako beste bost artistak, berriz, BilbaoArte Fundazioan egin dituzte egonaldiak; lankidetzara programa batean jardun dira institut Français delakoarekin, BilbaoArteko artista bat igorri Parisko Cité des Arts delakora (Frantzia); eta, bestalde, bi lankidetzara programa izan dira, eta, haiei esker, hiru artistak aldi bateko egonaldia egin ahal izan dute BilbaoArten, Kordobako Viana-Cajasur (Kordoba) Fundazioaren bitartez, eta Euskadiko Irudika marrazketako egonaldi artistikoen bitartez.

Era berean, hauek dira BilbaoArten egin diren jarduera batzuk: 14 erakusketa (bederatzi indibidualak eta bost kolektiboak); 250 ikus-entzunezko baino gehiagoren proiektzioa (zinema eta dokumentalak), gai bakarreko 18 ziklotan eta lau jaialditan; 22 hitzaldi eta solasaldi, hainbat gairi buruz: zineari buruz, Émilie Jouvét-ekin eta Lázaro Louzaorekin; ilustrazioaz, Isol Misenta, Sonia Pulido, André da Loba, Ximo Abadía eta André Letria

jaun-andreekin; argazkilaritzaz, David Hornback-ekin; kaligrafiaz, Yves Letermerekin; zineaz, Antonio Santamarinarekin, Santos Zunzunegirekin eta Norberto Albóniga Buruagarekin; 28 programa zine dokumentalari, zine esperimentalari, grabatu, kaligrafia eta pinturari, ehungintzako sorkuntzari, liotografiari eta literaturi buruz; zortzi kontzertu, Bonito Editorial, UniSound eta soinudun artearen arloko zenbait intepreterekin lankidetzan, baritono eta pianista batez gain; lau performance, BAD Bilbao eta BLV-Art-ekin elkarlanean; eta artisten zazpi liburu eta 20 esku-orri eta kartel argitaratzea.

BILBAOARTEK 20 URTE

Hamarkada bi hauetan, Bilboko Udalak, BilbaoArte Fundazioaren bidez eta BBK Fundazioarekin elkarlanean, **bostehun artista baino gehiagori beka eman die, erdiak Euskadikoak eta gainerakoak hainbat herrialdetakoak.** Era berean, Japonia, Txina, Estatu Batuak, Alemania, Frantzia, Portugal, Italia, Mexiko, Argentina, Txile, Ekuador, Tunez, Hego Korea eta beste herrialde batzuetatik etorritako milaka sortzailek euren proiektu artistikoak sortzeko zentro hau aukeratu dute, betiere Fundazioko profesionalen laguntzarekin. Zentroa nazioartera begira dagoela-eta, Alkateak adierazi du *“harro gaude zentro hau nazioarte-mailan ezaguna delako eta izen ona daukalako eta bere garaian horren alde egin zuelako.”*

BilbaArten mamitu diren arte arloko proposamen askorekin, gerora, erakusketak egin dira beste espazio batzuetan: Guggenheim Bilbao Museoan, Bilboko Arte Ederren Museoan, San Telmo Museoan, Kursaal aretoan, Montehermoson, Rekalden, Artiumen, Koldo Mitxelena, Iruñeko Zitudadela eta baita estatuko eta atzerriko hamarka galeriatan ere. Bizkaiko hiriburuan pentsatu, mamitu eta ekoiztu diren pieza asko, nazioarte-mailako azokatan erakutsi dira, ARCO azokan esaterako, eta une honetan munduko bildumarik garrantzitsuenen barruan daude.

BilbaoArte ekoizpen artistikorako Bilboko Udalaren zentroa kulturaren topagune eta zabalkunderako espazio bihurtu da; bertan erakusketak, mintegiak, tailerrak, ikastaroak, hitzaldiak, topaketak, performance-ak eta ikus-entzunezkoen proiektzioak egiten dira.

EL ALCALDE JUAN MARI ABURTO PRESIDE LA INAUGURACIÓN DE LA EXPOSICIÓN COLECTIVA DE ARTISTAS RESIDENTES EN EL CENTRO BILBAOARTE DURANTE ESTE AÑO

- La exposición anual de Puertas Abiertas de la Fundación BilbaoArte del Ayuntamiento de Bilbao reúne las obras artísticas de las 32 personas y 2 colectivos que, durante 2018, han hecho su residencia en este centro. La mayor parte son de Euskadi y el resto procede de diferentes países de América, Asia y Europa.
- El centro, situado en Bilbao La Vieja, acogerá esta muestra colectiva, abierta al público, a partir del próximo lunes, 10 de diciembre, y hasta el martes, 18 de diciembre, de lunes a viernes, por las tardes.
- En estos veinte años de historia del Centro, han recibido beca más de medio millar de artistas y miles de creadores y creadoras internacionales han elegido BilbaoArte como espacio para desarrollar sus proyectos artísticos con la colaboración del equipo profesional de la Fundación.

(Bilbao, 5 de diciembre de 2018). El Alcalde de Bilbao, **Juan Mari Aburto**, ha presidido la inauguración de la **exposición anual de Puertas Abiertas de la Fundación BilbaoArte**, que aglutina la obra de más de 32 artistas contemporáneos artistas y dos colectivos artísticos becados en este año 2018.

Tras felicitar a los y las artistas residentes, el Alcalde les ha trasladado su deseo de *“que este paso por Bilbao Arte sea una referencia clave de su curriculum”* y, además, ha señalado lo que significan estas becas para el Ayuntamiento, *“para nosotros supone una satisfacción poder colaborar en vuestra formación profesional. Retener y atraer talento a Bilbao es imprescindible para construir la ciudad del conocimiento, de la cultura, de la innovación, que queremos que sea Bilbao”*.

En este acto de presentación del Centro de Producción Artística Municipal, que celebró en noviembre su 20 aniversario, además del Alcalde y la Concejala de Cultura del Ayuntamiento, **Nekane Alonso**, han participado el director de cultura, Iñaki Lopez de Aguilera, y de BilbaoArte, Juan Zapater, así como galeristas de Bizkaia, representantes de entidades culturales de la ciudad y artistas del centro.

En su intervención, Juan Mari Aburto ha expuesto las claves de la política cultural que se desarrollan desde el Consistorio, *“Bilbao ha hecho de la política cultural uno de sus elementos identificativos y representativos. Bilbao tuvo que reinventarse: hemos pasado de ser una ciudad industrial a una ciudad de la cultura. En este sentido, el objetivo del Ayuntamiento es consolidar el posicionamiento internacional de Bilbao y también atender a las necesidades y derechos culturales de nuestra ciudadanía y apoyar e impulsar nuestro tejido creativo”*.

Asimismo, ha subrayado el papel que desempeña el sector cultural la Villa, *“sois un sector que contribuye a crear actividad económica y empleo, que representáis uno de los motores principales de las industrias creativas, uno de los sectores estratégicos del futuro de esta ciudad”*.

EXPOSICIÓN DE 2018

El Centro situado en Bilbao La Vieja acogerá esta muestra colectiva a partir del próximo lunes 10 de diciembre y hasta el martes 18 de diciembre; de lunes a viernes entre las 17:30 y las 20:30 horas.

Los y las artistas becadas en este curso han sido Álvaro Albaladejo, María Alcaide, Raquel Algaba, Raquel Asensi, Anaïs Boudot, Nuria Cano, Manuel Casellas, Ernesto Casero, Olivier Etchegaray, Ander Garitacelaya, Leticia Gaspar García, Oier Gil Zapirain, Rakel Gómez Vázquez, Borja Gómez, Raúl Hevia, Arrate Hidalgo, Jorge Isla, Christian Lagata, Pablo Marte, Raquel Meyers, Joan Morera Arbones, Aitziber Olaskoaga Ajuria, Onirokino, Saray Pérez Castilla, Amparo Prieto Monreal, Cristina Ramírez, Fernando Renes, Mabi Revuelta, Mar Reykjavik, Lusaba, Miguel Sbastida, Jakin Fernández / Uka y Marianne Wasowska.

Además de la exposición, la semana del 10 al 14 de diciembre, los artistas presentarán sus proyectos. El lunes y el martes, de mañana y tarde, los y las becadas harán sus ponencias por turnos de 15-20 minutos. De miércoles a viernes, a partir de las 19:00 horas, los y las artistas participantes en programas de movilidad con otros centros artísticos (*Cité des Arts de Paris, Kunsthaus de Bregenz, y SeMA Nanji Residency de Seul*), hablarán de su experiencia en residencia en Francia, Austria y Corea del Sur a lo largo del año.

El centro de producción artística cierra el año con alrededor de 100 usuarios de las instalaciones. En este 2018, ha promovido seis programas de movilidad: tres intercambios de artistas, en los cuales cinco artistas de BilbaoArte han realizado residencias en los centros de arte Kunsthaus Bregenz (Austria), SeMa Nanji Residency (Corea del Sur) y Amna Suraka (Kurdistán Iraquí) a través de Moving Artists. Otros cinco artistas provenientes de estos centros han completado residencias en la Fundación BilbaoArte; un programa de colaboración con el Institut Français para enviar un artista de BilbaoArte a la Cité des Arts de París (Francia); y dos programas de colaboración en los que tres artistas han podido disfrutar de una residencia temporal en BilbaoArte, a través de la Fundación Viana-Cajasur (Córdoba) y las residencias artísticas de ilustración de Irudika (Euskadi).

Asimismo, entre sus actividades, destacan la materialización de 14 exposiciones (nueve individuales y cinco colectivas); la proyección de más de 250 piezas audiovisuales (cine y documental) en 18 ciclos temáticos y cuatro festivales; 22 conferencias y charlas sobre temas como el cine, con Émilie Juvet y Lázaro Louzao; la ilustración, con Isol Misenta, Sonia Pulido, André da Loba, Ximo Abadía y André Letria; la fotografía, con David

Hornback; la caligrafía, con Yves Leterme; o el cine, con Antonio Santamarina, Santos Zunzunegi y Norberto Albóniga Buruaga; 28 programas de actividades sobre cine documental, cine experimental, grabado, caligrafía y pintura, creación en textil, litografía y literatura; ocho conciertos en colaboración con Bonito Editorial, UniSound y varios intérpretes de arte sonoro, además de un dúo de barítono y pianista; y cuatro performances, en colaboración con BAD Bilbao y BLV-Art, entre otros; y la publicación de siete libros de artista y alrededor de 20 folletos y carteles.

20 AÑOS DE BILBAOARTE

En estas dos décadas, el Ayuntamiento de Bilbao, a través de la Fundación BilbaoArte con la colaboración de la Fundación BBK, ha **becado a más de medio millar artistas, la mitad de ellos de Euskadi y el resto llegados de diferentes países**. Asimismo, **miles de creadores**, originarios de Japón, China, EE.UU., Alemania, Francia, Portugal, Italia, México, Argentina, Chile, Ecuador, Túnez, Corea del Sur, etc. han elegido este centro como espacio donde crear sus proyectos artísticos con la colaboración del equipo profesional de la Fundación. Relacionado con el carácter internacional de este centro, el Alcalde ha manifestado que *“el conocimiento y prestigio de este centro de producción a nivel internacional nos hace sinceramente estar muy orgullosos del centro y de la apuesta que en su día se hizo por el mismo”*.

En Bilbao Arte se han concretado propuestas artísticas que, posteriormente, han sido expuestas en espacios como el Museo Guggenheim Bilbao, el Museo de Bellas Artes de Bilbao, el Museo de San Telmo, la sala Kursaal, Montehermoso, Rekalde, Artium, Koldo Mitxelena, en la Ciudadela de Iruña... y en decenas de galerías tanto estatales como internacionales. Muchas de sus piezas ideadas, proyectadas y producidas en la capital vizcaina se han paseado por ferias internacionales como ARCO y ahora forman parte de las colecciones más emblemáticas del mundo.

El Centro de Producción Artística del Ayuntamiento de Bilbao, BilbaoArte, se ha convertido en un lugar de encuentro y espacio de divulgación cultural, donde tienen lugar exposiciones, seminarios, talleres, cursos, conferencias, encuentros, performances y proyecciones audiovisuales.